

Patxi Berraondo Juaristi

*Bergara,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea

Biografia



Berriketa Plaza izeneko saioan hartu du parte, beste hamaika herritarrekin batera, 2024ko Euskararen Egunean.

Zintak

BER-390

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Odria, Haizea
- **Data:** 2024-12-03
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Amona, Bergaran zerbitzaria

- **Erref:** BER-390/002
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:00:37. **Bukatu:** 00:02:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Patxiren amona Antzuolan jaio zen. Hamalau urterekin Bergarara joan zen lanera neskame bezala. Algodonerako teknikari bat zen etxeko jabea eta abadeak esan zion ez joateko etxe horretara lanera, gizonak emakumeei jo egiten zielako. Etxe hura utzi eta Artekalen zegoen "Txanbolintero" tabernan lanean hasi zen, 1910 inguruan. Bertan ezagutu zuen senarra, zarauztarra.</p>

2. Amonak ez zekien idazten ezta irakurtzen

- **Erref:** BER-390/003
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:02:19. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Amona ez zen eskolara joan eta ez zekien idazten ezta irakurtzen ere. Patxi bankura joaten zen amonaren pentsioa kobratzera eta amonaren partez sinatzen zuen. Amonak beti euskaraz egiten zuen, nahiz eta tabernan gaztelaniaz ere ikasi zuen.

3. Batxilergoan, nazioarekiko espiritua sustatzeko formakuntza

- **Erref:** BER-390/005
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Patxi, Bergarako eskola nazionaletan ibili zen umetan. Don Ignazio Zabala izan zuten irakasle eta inoiz ez zieten kanta frankistarik erakutsi. Batxilergoa, ordea, Lasa jatetxearen parean zegoen akademian egin zuen. Bertan, beste irakasgai batzuen artean, "Formación del espíritu nacional" ikasten zuten: frankismoaren inguruko kontuak, abestiak... Donostian egin behar izaten zuten azterketa urtean behin.

4. Bergarako lehenego ikastolako gela

- **Erref:** BER-390/006
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1957. urte inguruan, Patxik batxilergoa akademian egiten zuen bitartean, eraikin berdinean hasi zen Bergarako ikastola martxan, Arrasateko andereño baten ezkutik.

5. Dena euskaraz, zenbakiak izan ezik

- **Erref:** BER-390/008
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:06:08. **Bukatu:** 00:07:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaztetan denda batean egin zuen lan eta gogoratzen du, emakumeek egiten zituztela beti erosketak. Hilean behin, ordea, azoka egoten zen eta gizonezkoak ere herrira jeisten ziren kaleko girora. Erosten zutena dendan uzten zuten, hurrengo egunean emazteek jasotzeko. Euskaraz izaten zen egunerokotasuna, baina zenbakiak, dirua... gaztelaniaz esaten ziren.

6. Trukea erabiltzen zen ordaintzeko

- **Erref:** BER-390/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:07:31. **Bukatu:** 00:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Dendan trukean ere ibiltzen ziren. Ez zuten esaten zenbat zen, baina gogoratzen du astero joaten zela gizon bat baserrirako erramintak edo bestelakoak erostera eta trukean arrautzak, porruak, gazta... uzten zituen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com